



GOMENDIO-DEKALOGOA

1. Idazterakoan, ez izan **presarik**. Presak ez zaitu inora eramango. Irakurri, behatu, entzun, egin oharrak.
2. Idatzi baino lehen, **pentsatu** nolako nahi duzun izatea zure ipuina: pertsonaiak, tokia, denbora, nola nahi duzun hasi, nola nahi duzun amaitu.
3. **Idatzi**, idatzi eta idatzi. Oraindik ez da iritsi idatzitakoa epaitzeko unea, ona ote den edo ez aztertzekoa, barregarria ote den edo ez hausnartzekoa. Ez kezkatu, izango duzu horretarako astia!
4. Saiatu ekiditen topikoak eta betiko leloak. Izan zaituz **originala** eta ausarta. Nola? Ezagutzen duzunari buruz mintza zaituz, zintzotasunez.
5. **Laburtasuna**. Txekhovek zioen laburtasuna talentuaren ahizpa dela. Batez ere ipuin laburrei buruz ari garenean. Ez zaituz luzatu deskribapen, elkarrizketa edota edergarriekin.
6. Irakurleak arretari euts diezaiola. Dosifikatu informazioa, ustekabeak, istorioaren norabide aldaketak. Irakurleak ez dezala **interesa** gal!
7. Zaindu **amaiera**. Ipuin asko ondo hasten dira baina amaieran indarra galtzen dute, hain zuzen, agindutakoa bete ez dutelako. Horregatik, ondo pentsatu nola nahi duzun amaitu zure ipuina; ahal bada, idazten hasi aurretik.
8. Testuak **har dezala atsedean** egun batzuetan.
9. Iritsi da ipuina begi kritikoekin **aztertze**ko unea. Kendu soberan dagoena, konbentzitzen ez zaituena, funtzionatzen ez duena. Ez izan mozteko beldurrik, istorioa hobetuko duzu-eta!
10. Orain testua www.inspiraciencia.es web gunera **bidal** dezakezu. *Alea jacta est!* Zortea botata dago! Irabaz dezala onenak!